

Nabigazioa eta Kudeaketa, eGelan (Moodle 2.5)

Irakaslearentzako eskuliburua

1. bertsioa (2014/06/23)

Honako eskuliburu hau Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Campus Birtualak landu du.

Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 3.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/> helbidean.

NABIGAZIOA

Moodle plataforman nabigatu ahal izateko, lehenik eta behin, geure burua identifikatu beharko dugu plataforman. Horretarako, gure LDAP kontua eta pasahitza erabili beharko ditugu.



1. irudia: Autentifikazio-orria


Behin erregistratu ostean, gunearen orri nagusira sartuko gara. Handik, partaide gisa izendatuta gauden ikastaroetara sartzeko aukera izango dugu. Komenigarria da gogoratzea eGELA zerbitzuan, Ikasgela Birtualen Gestoreak automatikoki txertatzen duela ikaslea. Irakasleak, berriz, ikasgela eskatzeko unean edo beste pertsona batek sortutako ikasgela Kudeatzailearen bitartez beste irakasle batzuekin partekatzen duenean txertatuko dira.



2. irudia: Orri nagusia


Ezkerreko zutabean, **Nabigazioa** eta **Kudeaketa** blokeak ditugu; erdialdean, berriz, kategoriak eta ikastaroak bilatzeko kaxa. Gure ikastaroetara sartzeko, **Nire ikastaroak** aukera sakatuko dugu.

Plataforman mugitzeko moduan izandako aldaketa, hain zuzen, Moodle 2.X-ekin lan egitean izango dugun berrikuntza handienetako bat da. Moodleren beste bertsio batzuen erabiltzaileek jakingo dute, orain arte, plataforman mugitzeko elementu nagusia nabigazio-barra zela, nola gunean, hala ikastaroan.





3. irudia: Nabigazio-barra, Moodle 1.9-n


Orain, berriz, Moodle 2.X-en, bi bloke berri aurkituko ditugu: "Nabigazioa" eta "Kudeaketa" (ezkerreko zutabean ikusiko ditugu). Bloke horiei esker, gunean zehar mugitu ahal izango gara, eta plataformak gure rolaekin lotuta ematen dizkigun ezarpen-aukera guztiak kudeatu ahal izango ditugu.



4. irudia: Ikastaro baten itxura, Moodle 2.5-en

Bi blokeek bina ikono dituzte, lana errazten lagunduko digutenak:


 ikonoak blokearen menua ezkutatzeko aukera emango digu. Eta berriro erabilgarri jartzeko, honako honen gainean egin beharko dugu klik: 



5. irudia: Blokearen menua, zabalik

6. irudia: "Nabigazioa" blokearen menua, ezkutatuta



 ikonoa, berriz, berrikuntza da Moodle 2.X-en. Blokea **dockera** edo **alboko barrara** bidaltzeko balio du; alegia, laburtzeko. Behin blokea alboko barran laburtuta dagoenean, une oro sartu ahal izango gara bertara, nonahitik: erlaitzean klik egin beharko dugu, besterik ez. Eta berriro jatorrizko itxurara eramateko, zabaltzeko alegia, ikonoa erabili beharko da.




7. irudia: Alboko barran edo *dock*ean laburtutako blokeak

Erlaitzaren gainean klik egin ondoren, blokearen menua eta jatorrizko itxurara eramateko edo ezkutatzeko ikonoak azalduko zaizkigu.



8. irudia: "Nabigazioa" blokea, *dock*era edo alboko barrara bidalia

Edizioa aktibatuz gero, hiru ikono direla ikusiko dugu: aurreko biak gehi blokearen ezarpenak editatzeari dagokiona 

Ikono horiek, hain zuzen, 2.5 bertsioan plataforman aurkituko ditugun bloke guztietakoak bezalakoak dira.

"**Nabigazioa**" blokea guneko orri guztietan ageri da. Zabaltzen den zuhaitz-itxurako menua dauka. "Nabigazioa" blokean ageri diren estekak, hain justu, erabiltzailearen rola araberakoak, Moodle guneko zer tokitan dauden eta orokorrean aplikatutako zeinahi ezarpenen araberakoak izango dira. Horregatik, plataforman nabigatzen goazen heinean, "**Nabigazioa**" eta "**Kudeaketa**" blokeen estekak aldatuz joango dira.

Gunean, "**Nabigazioa**" blokeak honako esteka hauek erakutsiko dizkio **irakasle-rola** duen pertsona bati:




9. irudia: "Nabigazioa" blokea, gunean, irakasleentzat

- Orri nagusia: Hasiera-orrira eramango gaitu
- Norberaren gunea: Gure ikastaroen ikuspegi orokorra jaso ahal izango dugu, eta bertan, ikastaro horietako aktibitateen egoera ikusi eta "Nire fitxategi pribatuak" blokeratu sartu ahal izango gara (berrikuntza 2.X-en).
- Gunearen orriak:
 - **Guneko blogak:** Moodlek hiru mailatan kudeatzen ditu blogak: pertsonala, ikastarokoa eta gunekoa. Hauxe da plataforman argitaratzen den bloga. Guneko bloga da handiena; izan ere, **erabiltzaile guztien blog pertsonaletako sarrera guztiak** osatzen dute. Guneko blogean sarrera bat gehitzeko, "gehitu sarrera berria" esteka sakatu beharko dugu. Sarrera hori guneko blogean eta erabiltzailearen blog pertsonalean gehituko da. Horrek esan nahi du, berez, plataformako erabiltzaileek erabiltzaile guztien blogak ikus ditzaketela, zeinahi ikastarotan matrikulatuta egonda ere. Guneko blogeko sarrera batean klik eginez gero, sarbidea izango dugu ez soilik sarrera horretara, baizik eta baita sortu zuen erabiltzailearen blog pertsonalera ere. Kudeatzaileak ikasgelan hainbat ezarpen jar ditzake, erabiltzaileek soilik euren blogerako sarbidea izan dezaten; eta ezaugarri hori desaktibatuzko aukera ere izango du.
 - **Markak:** Ikasle zein irakasleek euren interesak deskribatzeko erabiltzen dituzten hitzak edo esaldi motzak dira markak; era horretan, antzeko interesak dituzten

pertsonek erraz aurkituko dituzte. Erabiltzaile-profilean "Interesak" izeneko eremu bat dago. Bertan, gure intereseko gauzak hobekien deskribatzen dituzten markak gehitu ahal izango ditugu; berri gisa sortu ahal izango dira, edo lehendik dagoen marka batera gehitu dezake erabiltzailea. Era berean, web-orrialdeetan zein blogetako sarreretan (post) ere gehitu ahal izango ditugu markak.

- **Egutegia:** Esteka honek egutegi batera eramango gaitu, eta bertan jasota egongo dira gune osoarentzat komunak diren zein ikastaroarenak berarenak diren ekitaldiak. Erabiltzaileak, halaber, ekitaldi berekiak gehitu ahal izango ditu. Egutegiak agenda baten erabilera dauka.
- Nire profila:
 - **Ikusi profila:** "Ikusi profila" esteka sakatuz gero, gure profileko datuak erakutsiko dizkigun orri bat azalduko zaigu. Orri horretan bertan, "Kudeaketa" izenburua duen blokea ikusiko dugu, eta horrekin, editatu ahal izango dugu.
 - **Mezuak foroetan:** bi esteka ditu
 - Mezuak. Foroetako gure ekarpen guztiak jasotzen ditu
 - Eztabaidak. Geuk hasitako eztabaidak baino ez ditu jasoko
 - **Blogak:** hiru esteka erakutsiko dizkigu
 - Ikusi nire sarrera guztiak
 - Gehitu sarrera berria: gunean argitaratu ahal izango dugu, edo bestela, geuk bakarrik ikusi (zirriborroa)
 - Blogaren RSS iturria: erabiltzaileen blogetara harpidetzeko aukera ematen digu
 - **Nire fitxategi pribatuak** (berrikuntza 2.X-en). Gai hau moodle 2.5-en fitxategien kudeaketari buruzko dokumentuan landuko dugu.
- Nire ikastaroak: Plataforman parte hartzen ari garen ikastaroen zerrenda ikusiko dugu hemen, eta horietarako sarbide bizkorra emango digu.

Ikastaroan, "Nabigazioa" blokeak aurretik aipatutako estekak eta "Oraingo ikastaroa" esteka erakutsiko dizkigu:




10. irudia: "Nabigazioa" blokea, ikastaroan, irakasleentzat

- Oraingo ikastaroa:
 - **Partaideak:** Ikastaro bateko partaideen zerrenda erakutsiko digu
 - Gure ikastaroko 0 blokerako sarbidea emango digu (bertan egongo da "Berrien" foroa)
 - **Gaiak:** ikastaroko gai bakoitzarekiko lotura emango digu, eta horiei atxikitako baliabide edo aktibitateak izanez gero, horietako bakoitzera lotuko gaitu.

KUDEAKETA

Ezkerreko zutabean, "Kudeaketa" blokea daukagu. Hainbat esteka erakutsiko dizkigu, plataforman gauden tokiaren arabera:



11. irudia: "Kudeaketa" blokea, hasiera-orian 12. irudia: "Kudeaketa" blokea, ikastaroan, irakasleentzat

Ikus dezakegun bezala, gunean, "Nire profilaren ezarpenak" baino ez dugu eskura; ikastaroan, ordea, logikoa den bezala, aukera sorta handiagoa da. "Nire profilaren ezarpenak" ikastaroan ere agertzen direnez, testuinguru horretan azalduko ditugu.

- **Ikastaroaren kudeaketa:** gure ikastaroaren ezarpenak finkatzeko aukera emango digu.


"Kudeaketa" bloke honetan, "Ikastaroaren kudeaketa" da atalik garrantzitsuena. Honako irudi honetan, bertako edukia ikus dezakegu.



13. irudia: "Kudeaketa" blokea, irakasleentzat


- **Aktibatu edizioa:** Esteka honetan klik eginez gero, gure ikastaroan lan egin ahal izango dugu, baliabideak eta aktibitateak gehituta, baliabide eta aktibitate horien ezarpenak editatuta eta horien ikusgaitasuna kudeatuta. Edizioa esteka honetatik aktibatu daiteke, edo gure pantailaren eskuineko goiko aldean ageri den "aktibatu edizioa" botoia sakatuta. "Baliabideen kudeaketa eGELAn (Moodle 2.5)" dokumentua kontsultatu.
- **Ezarpenak editatu:** Ikastaroaren ezarpenetarako sarbidea emango digu. Atal honek duen garrantzia aintzat hartuta, aparteko dokumentu batean ("Ikastaroaren ezarpenak") dago landuta.
- **Erabiltzaileak:** Aukera honekin, matrikulatuta dauden erabiltzaileak ikusi ahal izango ditugu, eta 1.9 bertsioan "Rolak esleitu" aukerarekin egiten ziren eragiketak egin ahal izango ditugu. Informazio gehiago behar izanez gero, ikusi "Ikastaroaren Ezarpenak eta Matrikulatutako Ikasleak" dokumentua.
- **Txostenak:** Ikastaroan erabiltzaileek duten aktibitatea ezagutzeko aukera emango digu esteka honek.
- **Kalifikazioak:** Ikastaroko aktibitateetan ikasleek eskuratutako kalifikazioak erakutsiko dizkigu esteka honek.
- **Galdera-bankua:** Kategoriatan antolatutako galderak sortzeko edo editatzeko erabiltzen da, irakasgaiari erabili ahal izateko. Galdera horiek ikastaroko zeinahi galdetegitan txertatu ahal izango dira. Atal honek duen garrantzia aintzat hartuta, aparteko dokumentu batean ("Galdera-bankua eta galdetegiak") dago landuta.
- **Aukeratu beste rol bat:** gurea ez beste rol bat daukan erabiltzaileak (ediziorako baimenik ez duen irakaslea, ikaslea edo bisitaria) ikastaroa nola ikusiko zukeen ikusteko aukera ematen digu. 1.9 bertsioan, ordea, eskuineko goiko aldean, "Edizioa aktibatu" botoiaren

alboan, zegoen goitibeherako batetik egin zitekeen.



14. irudia: "Aukeratu beste rol bat", Moodle 1.9-n

Behin aldatu dugunean, esteka bat agertuko zaigu hementxe, gure ohiko rolera itzultzeko



15. irudia: "Aukeratu beste rol bat", Moodle 2.5-en

- **Nire profilaren ezarpenak:** gure profila editatzeko eta jakinarazpenen ezarpenak finkatzeko aukera emango digu.
 - **Profila editatu.** Atal honetan, gure profileko aukera batzuk aldatu ahal izango ditugu, eta gure erabiltzailea identifikatzeko irudia ere igotzeko aukera izango dugu. Irudiak JPG edo PNG formatukoa izan behar du (alegia, irudiaren izenak .jpg edo .png amaiera izan beharko du), eta 100 x 100 pixeleko edo gehiagoko tamainakoa. Honako lau metodo hauetako bat baliatuta txertatu ahal izango dugu irudia:
 - Argazki-kamera digitala erabilia. Oso erraza da; gure argazkiak, seguru asko,

dagokion formatuan egongo baitira ordenagailuan.

- Eskanerra erabilia, inprimatutako argazki bat digitalizatzeko. Ziurtatu behar dugu argazkia JPG edo PNG formatuan gordetzen dugula.
- Era berean, irudi bat marraztu ahal izango dugu, diseinu-programa bat baliatuta.
- Edo sarean aurkitu dezakegu beharrezkoa dugun irudia. Behin bilatu dugunean, kurtsorea gainean jarri, eta saguaren eskuineko botoia sakatuta, "Gorde irudia honela" aukera hautatuko dugu. (Ordenagailu bakoitzak bere erara eduki dezake prozedura hau).

Irudia igotzeko, bi aukera ditugu.

- "Gehitu" sakatu, eta **Fitxategi-hautatzailea** irekiko zaigu; horixe da fitxategiak kudeatzeko Moodle 2.5-en tresna berria. "Igo fitxategia" aukeratik, gure argazkia gehitu ahal izango dugu, eta interesatzen zaigun argazkia aztertzeko eta gehitzeko aukera emango digu. Amaitzeko, "Igo fitxategi hau" aukera sakatuko dugu.



16. irudia: "Profila editatu" formularioa, "Erabiltzailearen irudia" atala

Gure Pctik argazki bat aukeratu ahal izango dugu




17. irudia: Fitxategi-hautatzailea, "Igo fitxategia"

- Argazki bat herrestan eraman, eta askatu formularioan.




10 baino bertsio txikiagoan IE erabiliz gero, aukera hori ez da eskuragarri egongo



▼ Erabiltzailearen irudia

Draingo argazkia Bat ere ez
Irudi berria ?

Gehienezko tamaina fitxategi berrietarako: 10MB, gehienezko eranskinekopurua: 1



Irudiaren deskribapena

18. Irudia: Herrestan eraman eta askatu



Ziurtatu behar dugu ez dugula igoko baimendutako gehienezko tamaina baino handiagoa den irudi bat (bytetan); ez baita kargatuko.

Ondoren, "Eguneratu informazio pertsonala" aukeran klik egingo dugu (orriaren beheko aldean). Irudia 100 x 100 pixel baino handiagoa bada, moztu egingo da.

Gure irudia aldatzen edo igotzen amaitzen dugunean, litekeena da ez ikustea aldaketa. Hala gertatuz gero, orria eguneratu behar dugu (F5 edo "eguneratu botoia" sakatuta).

- **Mezularitza:** *Mezularitzako nire profilaren ezarpenak* aukeratik, mezuak zer eratan jaso nahi ditugun adierazi ahal izango dugu. Erabilgarri ditugun aukeren artean, ateratako leihoa edo/eta mezu elektronikoa daude.

- **Blogak: Lehentasunak.** Esteka honetan blog-sarreren kopurua finkatu ahal izango dugu, orriko.
- **Aktibitate-txostenak:** Gure ikastaroko erabiltzaileen informaziora sartzeko aukera emango digu.